

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Vera kontseilariak osasun-arloan Nafarroako Gobernuak egindako jarduerak aurkeztuko ditu Bilbon

Krisi ekonomikoaren aurrean osasun-publikoaren inguruko eztabaida-mahaian parte hartuko du gaur arratsaldean, beste erkidego batzuetako adituekin batera

Martes, 24 de enero de 2012

Osasun Departamentuko kontseilari Marta Vera Janín-ek osasun-arloan Nafarroako Gobernuak aurrera eramaten ari den zenbait jarduera aurkeztuko du gaur arratsaldean Deustuko Unibertsitatean.

Kontseilariaren agerraldia, "Osasun publikoa krisiaren aurrean: jarduera publiko, zentzuzko jarduera eta jarduera arduratsurako gomendioak" dokumentuaren inguruan eztabaidatzeko xede duen jardunaldi batean barnean egingo da; dokumentu hori Osasunaren Ekonomia Elkarteko (AES) kideek landu dute. Ekitaldia AESek eta Osasun Berrikuntzako Euskal Institutuak (O+BERRI) antolatu du, eta arratsaldeko 18:00etan hasia aurreikusten da.

Eztabaidako mahaia, Vera kontseilariak gain, honako hauek osatuko dute: Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo kontseilari Rafael Bengoak, eta dokumentu horren bi egilek: Kanaria Handiko Las Palmasko Unibertsitateko katedratiko Betariz Gonzálezek eta Osasun Zerbitzuetako Ikerkuntza Fundazio Institutuko (IISS) lehendakariorde Ricard Meneu-k.

Verak Nafarroan hainbat arlotan burutzen ari diren jarduerari buruz ariko da, Osasuneko oinarriko hamabost gunetan jada ezarrita dagoen eta irizpide klinikoengatik laneko bajak kudeatzeko eredu azpimarratuz; eredu horri Ministerioak "Laguntza Kalitatetaren Hobekuntza Globalaren Berrikuntza"-ren lehen saria eman zion. Azpimarratuko du, halaber, Nafarroako Ospitale Guneko zerbitzuak bateratzeko eredu eta bere transformazioa egun lan egiten ari diren arlo klinikoetan.

Marta Verak gaixo kronikoaren arreta-proiektuaz ere hitz egingo du, Nafarroako Osasun Zerbitzuak abian jarri nahi dena, eta horrek hainbat patologia duten gaixoekin jarraitu beharreko estrategia aldatzea ekarriko du; kostu-eraginkortasun terminoetan egindako ebaluazio ekonomikoaz ere hitz egingo du, Nafarroan egiten dena osasun-teknologiaren eta sendagaien inguruan.

"Osasun publikoa krisiaren aurrean: jarduera publiko, zentzuzko jarduera eta jarduera arduratsurako gomendioak" dokumentua ondorengo premisatik abiatzen da: ezin zaiola etorkizunean iragan hamarkadako osasuneko gastu publikoaren hazkunde-erritmoari eutsi, eta irrealaz gain ez dela komeni osasun-gastuaren igoera defendatzea egun dugun egoera

ekonomikoaren aurrean.

Testua sinatzen dutenek defendatzen dute, gainera, praktikan jarriko diren doikuntza-neurri horiekin batera, beharrezko erreformak praktikan jarri behar direla, epe luzera osasuneko sistema publiko eraginkorra, bidezkoa, fidagarria eta etorkizuneko krisien aurrean hain ahula ez dena babes ditzaten. Helburu horiek kontuan hartuz, 17 puntutan oinarritutako "Jarduera publikoko gida" bat proposatzen da, eta haien artean adierazten dira: eraginkortasuna eta kostu-eraginkortasuna berraztertzea legitimazioko irizpide gisa, mediku-zerbitzuena nahiz sendagai eta teknologiena; estatu-mailako Ebaluazio Agentzia baten ustezko sorrera; gaixoak lehenestea bere larritasunaren arabera, itxarote-zerrendaren berraztertze sistematikoari eta monitorizazioari lotuta; kudeaketa-hitzarmenak eta ordainsariak emaitzen arabera; osasun publiko hobea baten garapena; edo fokua gaixo, kroniko, ahul eta terminaletara aldatzea.